

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozioaren muina, gure kasuan Argentinan bizi diren euskaldunak bezero egokienak direla iruditzen zaigu. Hauei zuzenduta dago enpresa, izan ere, Ameriketara dauden 150 euskal etxeetatik, 65 euskal etxe bertan kokatzen dira. Ez dugu adin edo sexu zehatzik izango, edozeinek izango baitu webgunera sartzeko edo gure enpresan erosteko aukera, hau da, ez dugu bezero egokirik ez desegokirik izango eta ez dugu inor ere ez baztertuko.



Enpresa honen bidez, Euskal Herriko produktuak Argentinan bizi diren euskalduneri zabaltzea eta hemengo produktuak eskuragarri izan ditzatela dugu helburu, geroz eta euskaldun gehiago bizi baitira hemendik kanpo, eta beraien lurrarekin kontaktuan egoteko modu erreza dela iruditzen zaigu.

Euskal etxeekin kontaktuan jartzeko korreo bat bidaliko diegu gure enpresaz berri izan dezaten. Korreo honetan gure enpresaren funtzionamendua argituko diegu baita beraien galderak erantzun ere. Hala eta guztiz ere, gure webgunean beharrezko argibide guztiak egongo dira, hala saskia eskatzeko, nola erosketara errazteko.

Bezeroekin kontaktuan jartzeko webgune bat sortuko dugu, eta zalantzaren bat izanez gero, bertan aurkigarri izango dute gure enpresaren telefono zenbaki bat. Horrez gain, produktua entregatzeko garaian gurekin kontaktuan jar daitezke, eta hori dena gutxi izango balitz, korreoa 24 orduz erabilgarri izango dute eta beraien zalantzak argitzeko prest egongo gara uneoro. Behar izanez gero, gure enpresari buruz berri emateko bertara mugitu gaitzke.

Honekin lortu nahiko genukeena hemengo produktuak Ameriketara salgai izatea da, baita eskuragarriago izan dezatela ere. Euskal etxeak egoteaz gain, hemengo produktuak han egoteak hemengo kultura bultzatzen duelako. Gainera, han dauden askok euskal etxea dute elkargune eta ez dago ezer hobeagorik ospatzeko hemengo produktuak edukitzea baino.

